

## *Baratze bat*

Pier Paul Berzaitz

Hau da egün ederra  
mila txoriek kanta  
zauri ene erregina  
besuak zuri ditizüt para.

Baratze bat nahi deizüt egin  
amets segretüenekilan  
liliak egün jauntzi ederrenetan  
mila kolorez dantzan bihotzetan..

Gaü beltz ta sakonetik  
elkitzen nüzü hoztürik  
bihotza hain tristerik  
zutaz hainen berantetsitürük

Baratze bat .....

Karrosa bat hor dugü  
kanpoan gure haidür  
ez gal haboro denbora  
hiskor beitago amodioa.

Baratze bat .....

Maitarzün berriari  
ilargiak dü argi  
emanen deikü aski  
gük alkar maita dezagün beti.

Baratze bat nahi deizüt egin  
amets sekretü enekilan  
liliak egün jauntzi ederrenetan  
mila kolorez dantzan bihotzetan.. | (Polikituz Bis)